

Grabitatearen legea

Euskaldunon Egunkaria, 1997-05-04: 3.

Bada naturako lege bat nire barruan oso finkatua daukadana: naturan grabitateak berez jokaten duen legez, gure bizitzan badirela beste zenbait fisikoak izan gabe fermuki zentzu berean hutsik egin gabe Newtonen sagarrarena bera egiten dutenak: txurtenetik onduaz ihartzen diren bezala behera datoz. Euskal Herrian esate baterako denbora pasa ahala herritasunean indartsuago eskatzen du soziologian eta politikan bere tokia, eta Europa bateratzeko bidean, oraintxe, errespetatu beharko dute azkenean bere jatorriko duintasunean. Itxi nahi dizkiote espainolek eta frantsesek oraindik zekenkeriaz edo gorrotoz justiziako bide guztiak. Badakit kostako dela oraindik min eta dolore eta denbora, sasoi osoak, baina guretako bakoitza gertuago ikusten ari da Euskadiren lorpen naturala. Gogora, gaur hogeitun urte sortu genituen demokrazia berrian bi egunkari erdaldun, *apaingarri* euskaldun batzuekin, *garesti!* irteten zirenak, euskara beti karu!, eta estorbu, lekuko naiz!, baina gaur, hogeitun urte gero, EUSKALDUNON EGUNKARIAk sei urte ditu, ez da oraindik nahi eta behar adinako mailakoa, baina euskara duin, huts eta ederrean osorik idatzia dator. Batzuek gutxiegi dela uste dute, beste batzuek alderdikor dela, besteek oraindik eskas; baina goizero Euskal Herri osora euskaraz hizketan plazaratzen da, sagarra ontzen duen eguzkia bezala, bihotzak berotzen.